

JOAN INAZIO GOIKOETXEA «GAZTELU» OLERKARIAZ ZENBAIT ABURU

Bizitzak ez du geldi aldirik, eten gabeko martxan doa eta ekin eta jarrai hortan mamitzen dute gizonek herri baten nortasuna. Atzokoa eta biharkoa izatean hartzen du herriaren kulturak bere dimentsioa. Ez gara ezer aintzinarik gabe, ez dugu etorkizunik gaurkorik gabe. Lantze eta erain aroak dakar uzta eta gizaldirik gizaldiko uztak ematen dio herri bati bere nortasuna.

Kezka horiek berekin zituen honako olerkiok idatzi zituenak, «Herria ibai» izen buruz:

*ez egonaldi
ez bakardi,
zati bat naum
HERRIA
kantatzen dut,
herria ez dago geldi
herria ba dabil
herria ibai da
medar
ala nasai
orain ilun
gero alai,
urrundik dator
iturri askotatik
gaur alkartu diranak
lau aldetatik,*

lehen artzai
nekezari
gaur langile
proletari
eta herri bat
EUSKAL-HERRI
odol askotako
azkari,
gaur orok ibai baten
nahasi,
joan
etorri,
herria ez dago geldi
herria ba dabil,
zati bat naun
HERRIA
kantatzen dut
herria
ibai...

Bere barnean egosten zen herri gogoaren adierazgarri ditugu poetaren bertso libre horiek. Azken batean, axola zitzaiona honako hau zen:

*nor garaile azkenean?
ez dik ajola nor danik
galtzale ala irabazle
nola joka denak baizik.*

Hori bai zen bere bizitzako esperientziatik jokabidetzat hartu zuena.

Eta, Joan Inazio Goikoetxea «Gaztelu», inongo hots handirik gabe, 1983ko Erregen egunez Donostian bertan hil zen. Nere iduriz, bere balioaz ez ginen gehiegi ohartu eta bere galeraz zer esanik ere ez. Gaztelu, bere gogoz, inorekin buruabat eginik bazegoen, bere herriarekin zen eta gure nortasuna hizkuntzaren bidezko elkartasunean ikusten zuen. Axularren esaldi hura beretzat hartuz: «Mihian da ezagun nor den betbedera». Eta bere olerki batean hala azaldu ere:

*mintza, kide,
nahiz garbi
edo lizun,
nahiz gordin
edo txukun,
mintza bederen
hil ez gaitezen...*

*hitza da
elkarren
ezaugarri,
ba gerala
jakitearren...*

Apala ez ezik barnerakoiegia zen bere gogoaren garra herriaren aurrean kementsu azaltzeko eta horrek ezkutatzen zuen gure uste zintzoan oso goiko mailetan jarria behar zuen olerkariaren izena.

Jakintza mailan ere ez zen nolanahikoa eta horren kezka ere bere olerkietan nabari da:

*hutsetik bizi da
nere jakin-gosea
zulo bat bezela
ondorik gabea:
ez da inolaz betetzen
nere jakin-gurea...*

Olerkiok dira pertsona beraren iduriz eginak eta Gaztelu joanaz poeta bat gutiago euskal-parnasoan.

1908. urtean jaio zen Gazteluko Bordatxuri baserrian, Larte mendipean, Kaputxino ordenan osatu zituen bere ikastaroak, Altsasun, Hondarribian, Lizarran eta Iruinean. Gazterik hasi zen olerkigintzan eta 1934an eman zion lehenengoak *Yakintza* aldizkarian argitaratzeari. Behar bada, bere olerkaritza, Aitzol-en gidaritzapean indartu zen Euskaltzaleak deitu mugimendu haren eraginezkoa zen hastapenetan zeren Gazteluk ere sari-keta ospetsu haietan parte hartu zuenez.

Gerrak barreiatu zuenetarikoa genuen Gaztelu. Herbestera-
turik, Ameriketan zenbait urtez bizia, Argentinako Llavallol,
Mar de Plata, Córdoba eta Mendozan. 1958an itzuli zen eta
geroztik, apez, Donostian. Baina, buru-belarri euskal gaiari
emana. Buenos Aires-ko *Euzko-Deia*, Guatemala eta Miarriz-
tzeko *Euzko-gogoa* eta hemengo *Egan*, *Zeruko Argia* eta *Olerti*
aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak. Inoiz saritua ere
izan zen eta saririk aipagarrien arteko ditugu 1970 eta 1971.
urteko Irun sariak poesiaz.

Bere olerkirik gehienak tristeak dira, inoiz etsipenezkoa
ere bai. Bizitzako gertakariak eta harat-honat ibili beharraren
eraginak tajutu bai zuen bere izakera:

*otanik gabe
gabiltza gizonok
galdu
gordean,
norakorik gabe
ontzia bezala
jitoan.*

Baina, ez ordea bizi nahirik ez zuelako, ez. Ohartzen zen
mutur batetik bestera, ezkortasunetik baikortasunera, ez eta
bai elkarrengandik hurbil zebiltzala maizenik. Horregatik esan-
go zigun:

*alkarri musuka dabiltz
gaua eta eguna
argia eta iluna.*

Gizonaren neurria, izanaren kosmos barnean txiki zela adie-
razteko. Baina, biziari ukorik egin gabe, zeren

*ona da bizia
bizitik at deusik ez da
bizia du gizonak hazta ta neurri
horregatik dario alai iturria
horregatik doa kantuz txoria
horregatik da usaidun lilia...*

Ausart agertuko zigun bere sentipena. Gizonaren dimentsioa
bere tokian kokatu ondorean, izatezko gutietsiaren barnean, bi-
zitzaren zentzua edertuz. Sorketazko ahalegina zen Gazteluren
gogozkoa, ideal hori zuen eder, gizonaren minak eragitzen ba-
zion ere karraxi eta oihu.

Juan Inazio Goikoetxea «Gaztelu»-ren lanik entzutetsuena
Musika ixilla deritzana da, 1962. urtearen azkenaldera argitara-
tua. Frai Luis de León eta San Juan de la Cruz-en poesi euska-
ratuak dira, Orixe zenaren hitzaurrez eta Gaztelu beraren zen-
bait oharrez, gaztelerauko autore bien bizitza eta euskal metri-
kari buruzko eraskiñez. Edizio kritikoa beraz. Itzulpenean
saiatu zen neurriaz gainera hitz-neurtuak azentu bidezko errit-
moz ematera, irakurgai aldetik hotsen doinuz jazteko, atsegina-
goa izan zedin.

Gaztelu ez zegoen ados Etxeparegandik orainarte poesien
metrika hertsiez jarraitu den era horrekin. Bere ustez, horrez
gainera bazen beste edergarri bat ere, azentuaren erabilkerare-
na. Euskaltzaindiko urgazle zen aldetik, igazko ekainerako hi-
tzaldi bat eskaini zigun gai hortaz, baina ordurako osasunez
oso makalik zebilen eta agindua ezina bihurtu zitzaion, gure
zoritxarrerako. Gai hortaz zituen pentsamenean zati batzu argi-
tara bazituen ere, gehienak berakin eroan ditu hilobira.

Añamendi argitaldariko *Español-Vasco* hiztegia, B. Estor-
nés Lasaren eragintzaz eta zuzendaritzaz eroan bazen ere, an-
tolaketa eta idazmoldea Gaztelurenak dira. Sei tomoak, A le-
tratik C-ra arte, argitaratu ziren eta hil ondorean zazpigarrena.
Tajuz egina da eta merezi luke lan horren jarraipenak, bere-
ziki Gazteluk burutu zuen partearena.

Baita ere, nori berea emateko, esan beharra dugu B. Es-
tornés Lasaren, *El cantar de Roncesvalles...* (1979) deritzan li-
buruan II, III eta IV parteak Gazteluk euskaratuak direla.

Hala ere, Gazteluren baliorik handiena olerkaritzan datza
eta *Olerti* eta beste zenbait aldizkaritan, *Egan* barne dela, ar-
gitara zituenez gainera Irun sariko biak hautatuko genituzke,
Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak 1972an bi liburutan
argitaratuak: *Gauean oihu* eta *Biziaren erroetan* izenburuz.
Bietan bada gauza bitxirik, bai azalez eta bai mamiz. Bide be-
rriak urratuz zetorren, hasieran esango zuen bezala: «Gauari
hitzekin bultzatetik nator».

Gizarte arazoak kezkatzen du eta hitza da erromes:

*Hitza da erromes
eskale
behartsu
gogoa orora
baina
ez doa iñora
nahi luke mundua besarka
nahi-ala
esan
esan-ala
egin
ogia ogi
harria harri
baina nahi izatea
ez da ahal izatea
eta nahia huts doa
luze du hegoa
baina motz zangoa...*

Hitz joko horietatik zijoan bere filosofia, eta herri minari ikutzen dionean irule fina agertuko zaigu, igarri nahi duenari keinuka:

*herriaren keinu hori
haizearen azmamiak laztantzen duten
argiaren kutxan gorderik dagoen
herriaren keinu hori.*

*baldin erdoirik
edo zahar-kutsurik
balinba nokurik
nahiz eta lohirik
erantsi bazaio.*

*herriaren keinu hori
ez baztertu
ez zapuztu
gutxiago ukatu...*

herriaren keinu hori.

Lehen liburua Vietnan-go gerra hurbil zela idatzia da, eta hango gertakariak eta heriotzak ere gizonki eta ausart salatu zituen, soinekoak urratuz, bilus eta maitasunez:

*maitea bilus kantatzen dut
maitea bilus
soil
tipil
bipil...
hostoa bezain has
galburuak bezain has
Kristok eskuetan
marruskatu zituenak
behin
maitea bilus
hilobi gainean zutik dagoen
vietnandar haurraren:
HEMEN DATZA ANA MARI,
HEMEN DATZA HO CHI MIN...
Port Knox-eko urregorriak
dolar beltzak ideki duen
hobi gainean dagoen
maitea bilus...
behi-begi izutuetan itzuri doan
belar-izpitan dardaraz dagoen
Sapelatzen oin-azpian zapart egin duen
harmagileen zumil-artean lehertu den
Herio-tolarean maluskatu den
maitea bilus...*

Era hortara, oihuak indartuz doa liburuaren azkenaldera, bukaerako bertsoak esaldi gogorrez azalduz. Egia esan, bere barnerakoitasunetik inoiz ez zen agertu hain ausarti. Azaltzen digunaren arabera, badirudi, bere erraietaraino kixkaltzen zuela gerra mingarri harek.

Bigarren liburua, bere izenburuak dion bezala, *Biziaren erroetan* dabilen olerki mina da. Bere izatea bere herriko lurrarekin lotzen du, maiz panteista tajurako ideiak agertuz bere sentipenik sakonenetan lurraren barne-taupadak jasoaz:

*hire muño gurien
hire baso ta oihan itsuetan
hire mendi ta arkaitz gorrietan
etzin nadi naizen hau zabal...*

Bere aragia lurturik herio loa opariz. Baina esperantza eta desesperantza elkarri burrukan ageri dira liburuaaren azken orrietan. Nahia eta ezina, gogoa eta etsipena elkarren aurrez; hala ere:

*halare
oraindik eder zera, larrosa,
atomo-bonba izan arren
umeen
gazteen
zaharren
emasabelen emaitza
duena hiltzen...*

*halere
oraindik eder zera, larrosa,
zure irudiaren betetasunean
zure mamiaren guritasunean
zure kolorearen zoriontasunean
zure usai onaren mozkortasunean
bai
oraindik eder zera, larrosa,
edertasun irudi panpoxa!*

Ez behar guziak gaintituz, oraindik bizitzari aurkitzen zaio ederrik eta natura bera da gizonentzat exenplu. Horregatik, Gazteluk, etsipenen barnetik ere lagun urkoaganako maitasuna bizi agertuko digu, zenbaitzuren ankerkeriak gora-behera.

Inoiz ordea, ankerkeria horiegatik etsipendurik, poeteri isilaraztea eskatuko dio, zeren onerako eginalak eginarren guzia alperrikakoa somatzen du. Alperrik,

*malko guzien pisua
nere barruan,
amets guzien errautsa
nere barruan...*

*ezer ez da iraukor
gizonen oinazea baizik,
dena da iragankor
eta da alperrik.*

*ixil zaitetze poetak, munduak
ez du merezi zuen kanturik...*

Bizitza nekatuan, anparu bila, nolabaiteko babes behar du gizonak, nekeen ihesbide besterik ez bada ere, eta Gazteluk bere haurtzaroko oroitzapen eztiak ditu maite. Era berean, gizonon sorkundera itzuli nahia, norbere erroetara gogozko eutsigarri bila, naturalezak berak hartara bultzaraziz, eta oroitzapenak ditu gogoko. Erroetara itzuliz aurkitu nahi du bere abaroa.

Bestalde, haurtzaro eta gaztaroko zenbait gertaerak eta norbaiten edo norbaitzuen kontseilu eta eraginez hartzen bai du gizonak bere bizitza guzia markatuko duen erabakia. Gero, adinduaz, inguru eta auzo eta herbesteetatik jasoko ditu ideak, gertakari berriak, laguntzak eta oztopoak; ezagutuko ditu gizonen maitasunak eta gorrotoak, eskuzabalak eta maltzurak. Gizarte korrentak eramango du ur garbi eta zikinetan zehar, orain tira, gero bultza, era askotariko tentazio eta gogoetetik. Hala ere, guzien gainetik, bere izateak tiratuko du eta gidatuko du barnetikako gogoen eraginez. Inoiz, naturak agintzen bai du beste ezerk baino gehiago.

Naturaren misterioak ordea, berezkoa du gizona bere sorkundera begira jartzea eta lehen ezagutu zuen argia, aintzina maitasunezko kontseiluz hezitzen ahalegindu ziren pertsonak, odolak berez tiratzen duenaz gainera, oroituko ditu eta beraietan aurkituko du nolabaiteko babes eta atsedeen hori. Bizitzan zehar hainbeste aldiz ausnartutako gogoetak eta oroitzak indar handia dute edonorrengan eta Gazteluren baitan, dirudienez,

amona Gregori izan zen lehen hezkuntzan eraginik gehien izan zuena. Horregatik eskainiko dio bere hileta soinua amona Gregoriri, maitasun lokarriak heriotza bera baino haruntzago eroan nahirik, bere gogozko izatearen zordun agertuz eta esker onez sentipenik sakonenak eskaini zizkion:

*zin gogor den biziak alkartu gindunok
bereiztea alkargandik,*

Berriz elkartu nahi du bizitzan gehien maitatu zuen pertsonarekin, oroimenak doaz haurtzarora, gogoz sorkundera begira jarriz, baina badaki materialki ezinezkoa zaiola eta gogozko lotura ez zaio aski. Berbizkundeaz zalantzak ditu nonbait, edo hortaz ez du gehiegi sinesten. Egiz, lur materia aurkituko du guzcion altzo edo, gutienez ere, hori ez dio ezerk ukatuko eta gogozkoa betetzeko bide zaio. Bete nahi hori hitz hauekin agertuko du liburuaren bukaeran:

*Amona Gregori:
oraindaiño bizian lagun zindugunok
lagun gaituzu aurki hilik
lurrean
guztion altzoan...*

Pentsamenduok garrantzizkoak iduritzen zaizkit gizon gogatsu eta pentsamen ausnarkor bategandik datozenez. Gaztelugan, hitza haragi da. Bere izate guzia hor agertu bait du.

Bere alde filosofikoan azalpen horiez gainera besterik ere bada, irakurketa bareago eta sakonago baten bidez ideia, pentsamena, gogoeta eta sentipena hobeto ezagutzera iritsiko ginateke. Oraingoz, lerro ximple hauek izan bitez behar haina ezagutzera heldu ez garen poetaz.

Bestalde, esan beharra dago, bere hizkera oso aberatsa dela, ugaritasunez eta edertasunez.

OTSALAR